

## “IKASLEEN ETA IRAKASLEEN ARTEKO KONPLIZITATEA LORTU GENUEN AZKENEAN”



*La Salle Berrozpe | Cristina Aldasoro | Zikloak*

La Salle Berrozpe eskola bereko hiru taldek lortu dituzte Zikloak kategoriko sailkapenaren aurreneko postuak. Cristina Aldasoro hiruen arduraduna da eta ondorengo erantzunak bidali dizkigu Jabalina (1), Problem? (2) eta Belarbolos Motorsport (3) taldeen izenean:

***laz lortu eta aurten errepikatu egin duzue. La Salle Berrozpe podiumaren jabe al da?***

Hala dirudi, edizio guztietan lortu baitugu sariren bat. Ez da zortea izan baina, etengabeko lan baten fruitua baizik. Ekintzailtza-gaitasunak garatzea funtsezkoa delako ustean, ilusio handia jartzen dugu proiektu honetan.

***Aurreko faseetan Belarbolos Motorsport taldea ez zen lehen lekuetan kokatu. Zer dela-eta sartu da azken orduan “ustekabea”?***

Hasierako lanak kaskarragoak ziren. Egindako bideoa ordea ederra eta interesgarria zen eta, antza denez, puntu asko lortu ditu ebaluazioan.

***Kosmodiseak aurrera egin ahala parte-hartze handiagoa izan dute ikasleek, edo, alderantziz, hasieran gogo handiz hasi eta ondoren hoztu egin dira?***

Proiektuak aurrera egin ahala prozesua “increscendo” doa, ez bairik gabe. Ikasleek hasieran ez daukate oso argi zer egin behar duten. Ideia eta Entrenamendu faseekin hasten dira: Kosmodisea plataforma erabiltzeko eta ezagutzeko eta proiektu berritzaileak “asmatzeko” ekimena eskatzen zaie eta zertxobait galduta daude hasieran. Ikono eta Grapho faseak burututa proiektua sendotuz doa eta errazagoa da lan egitea. MITO azken fasea bultzagarria izan ohi da beti eta gogo handiagoarekin –eta ondorioz, hobeto- lan egiten dute. Horrela gertatu zen Jabalina eta Problem? taldeekin.

Belarbolak Motorsport taldearen kasua ezberdina izan zen. Egin beharrekoa ez zuten oso argi hasieran eta motibaziorik gabe zeuden. Hobeto lan egin zuten ostean, MITO fasean batez ere eta azkenean, taldeen arteko lehiakortasunak bultzatuta, lan bikaina egin zuten.

***Lehiaketaren egiturak ikasturtearen jarduna oztopatzen du edo elkarren osagarri dira?***

Heziketa zikloek ikasturtearen iraupenera egokitutako egutegia dutenez, 1. zein 2. mailako ikasleak parte har dezakete. Ondorioz, gure heziketa zikloetako 50 bat ikasle hartu dute parte aurretan.

Beste etapetan parte hartu dugu ere. Egutegia urritik apirilera arte luzatzen da eta gure eskolak ikasgai ezberdinetako curriculumean sartzen du proiektua; esaterako, informatika, ingelesa, etab.

***Sari baten bidez aitortuak izateko aukerak motibatzen al ditu ikasleak?***

Ezbairik gabe. Ikasle-taldeen artean sortzen den lehia ere –azken fasean batez ere- oso garrantzitsua da.

***Eta irakasleak? Ikastetxea?***

Baita irakasleentzat eta eskolarentzat ere. Sariak irabaztea eta gure lan onaren aitormena jasotzea denon gustukoa da.

***Zein izan da Kosmodisean bizitutako esperientziaren onena?***

Hasieran neketsua bada ere ikasleei proiektuak pena merezi duela helaraztea, azkenean taldeka lan egiten dute, konprometituta eta inplikaturik, eta oso pozgarria da hori. Eta ikasle-irakasle konplizitate moduko bat ere sortzen dela esan dezaket. Laburbilduz, aurpegi luzeak ditugu hasieran, irribarreak bukaeran. Kursoa azken ekitaldia bikaina izan zen ere, oso ondo antolatua eta hunkigarria ere zenbait unetan.

***Zailtasun handienak noiz eta zergatik sortu dira?***

Plataformaren arazo teknikoak batzuetan. Ikasleen gogo bizia lortzea bestetan: bilatzen dugun interesa eta ekimena hasieratik azal dezaten.

***Edizio hau eta aurrekoak ikusi ondoren, ekimen honetan parte hartzearen esperientziak zein ondorio ekarri dizkie ikasleei?***

Nire iritziz bestelako proiektuekin nekez lortuko zituzten gaitasunak garatzen dituzte, beraiek gutxitan ohartzen badira ere. Eta proiektua sari batekin ixteak ematen duen poza.

***Eta irakasleei?***

Aurrekoaren ildotik, ikasleekin izandako "borrokak" pena merezi izan duela sentitzea; oso pozgarria da.

***Zortzigarren Kosmodisean parte hartzeko prest zaudete?***

Bai, baina ohar bat helarazi nahi diet antolatzaileei: zikloetan 18 urteko eta 30 urtetik gorako ikasleak aurki ditzakegu gela berean. Nire ustez aipatua aintzat hartu beharko lukete, planteamendua aldatuz.

***Ekimena hobetzeko ekarpenik egin nahi duzue?***

Taldeak proposatu dituen ideiak -edo ideia bat bederen- fase guztietan zehar garatzeko aukera eskain diezaieten heziketa zikloetako ikasleei. Garatu behar duten gaiarekin gusturago baleude ikasleek Kosmodisearekiko duten jarrera erabat aldatuko litzateke.